



PROTOKOLOA, UDALAREN KIROL ESKOLETAN TEKNOLOGIA DIGITALAK ARDURAZ ERABILTZEKO

Atarrabiako Udaleko Kirol Zerbitzuak teknologia digitalen erabilerari buruzko esparru etiko bat ezartzeko konpromisoa hartzen du, bai eta Kirol Eskoletako begirale, entrenatzaile eta kirolari adingabeen arteko itun digital bat ere, gailu mugikorren eta sare sozialen erabilera arduratsua ziurtatzeko kirol-instalazioetan, entrenamenduetan zein lehiaketetan, kirola egiten ematen den denboran.

1.- **Esparru Etikoak** honako **erantzukizun eta betebeharrak** hauek izango ditu gutxienez, eta Udalaren Kirol Eskoletako jardueran parte hartzen duten pertsona guztiei jakinaraziko zaie.

a) Gailu mugikorrei eta berehalako mezularitzaren eta sare sozialen erabilerari buruz:

- DEBEKATUTA DAGO **aldageletan** gailu mugikorrik erabiltzea, pertsonen intimitatea babesteko.
- DEBEKATUTA DAGO gailu mugikorrik eramatea kirola egiten den bitartean, dela lehiaketan dela entrenamenduetan, entrenatzaileak markatutako salbuespenetan izan ezik.
- Tresna digital horiek arduraz ERABIL DAITEZKE kirol-eremuan, betiere ezarritako arau etikoak errespetatzen badira.
- Entrenamendu edo lehiaketetako irudiak edo bideoak ESKURA ETA PARTEKA DAITEZKE, barne-erabilerarako edo sare sozialetan zabaltzeko, **baldin eta gurasoek edo adingabeen legezko tutoretza duten pertsonen baimena ematen badute, eta irizpide etikoak betetzen badira (irudi motak errespetatzea, gehiegizko esposizioa saihestea, eta abar).**
- EZ DIRA ERABILI BEHAR sare sozialak edo beste tresna digital batzuk iraintzeko, kalumniantzeko, iseka egiteko edo beste pertsona batzuekiko (lankideekiko, teknikariekiko, aurkariekiko, arbitroekiko eta abarrekiko) errespeturik ez izateko.
- EZ DIRA ZABALDU BEHAR pertsonen, Kirol Eskolen edo Udalaren irudia kaltetzen duten irudi edo testu konprometitu edo desegokiak.

b) Entrenatzaileei eta koordinatzaileei buruz:

- 14 urtetik beheetikoekin berehalako mezularitza (Whatsapp, Telegram,...) eta sare sozialen bidezko elkarrizketa pribatuak izatea saihestuko dute, eta, salbuespenez eginez gero, aitari, amari edo legezko tutoretza duen pertsonari jakinarazi beharko diote.
- Ez dute taldeko inor baztertuko bitarteko horien bidez komunikatzen direnean. Horretarako, bitarteko alternatiboak erabiliko ditu.
- Adingabeekin Internet bidez dituzten elkarrizketek kirol arloko harremanaren mugak gainditzen ez dituztela zainduko dute.
- Tresna digitalen erabileran kirolari adingabeekin lortzen dituzten akordioak errespetatu beharko dituzte.
- Interneteko elkarrizketak batzuetan entretenimendu hutsez egiten badira ere, edukiak ekarpenen bat egin behar du. Kasu honetan, entrenatzailearen ardura izango da portaera horiek bideratzea, talde horren helburuak zein diren gogoratuz eta bertan parteka daitekeen eduki motari buruzko jarraibideak ezarriz, neurri zorrotzak hartu aurretik (taldea itxi, norbait aldi baterako bota...)
- Hezitzaileak diren aldetik, eredugarri jokatu behar dute tresna digitalen erabileran.
- Inpartzialki jokatu behar da teknologia digitalei buruzko esparru etikoa betetzen ez duten pertsonen jarrera edo portaeraren bat zigortzeko edo aurpegiratzeko orduan.

2.- Kirol-eskoletako entrenatzaileen eta adin txikiko kirolarien arteko itun digitala:

Denboraldi hasieran entrenatzaileek orri bat sinatu eta sinaraziko diete ikasleei, honako konpromiso hauekin:

- Ez ditugu gailu mugikorrek aldageletan erabiliko, gure intimitatea eta gainerakoena babesteko.
- Internet bidez izaten ditugun elkarrizketetan ez dugu errespetua galduko, ez dugu inor irainduko, ezta gutxietsiko ere.



- Sare sozialak ez ditugu erabiliko buloak sortzeko bozgorailu gisa, ezta aurkarietarako, arbitroekiko, zaleekiko eta abarrekiko errespetua galtzeko ere.
- Ez dugu ikaskideen irudirik partekatuko, ezta argitaratuko ere, haien eta amaren/aitaren edo legezko tutorearen baimenik gabe.
- Eremu pribatuko elkarrizketak edo edukiak ez ditugu taldetik kanpo zabalduko
- Ez dugu inor baztertuko taldearekin zerikusia duten elkarrizketetan.
- Entrenatzailearekin dituzten tresna digitalen erabilerari buruzko akordioak errespetatuko ditut.

Nahitaez bete beharreko itun hau kirolari adingabeek sinatuko dute jardueran izena emateko unean, honela:

14 eta 17 urte bitarteko adingabeek, euren izenean.

- 14 urtez behetiko adingabeen kasuan euren ama/aitak edota legezko ordezkariak sinatua.

Itun digitala ez betetzeak kirol mailako zigorren bat ekar dezake, eta, hala badagokio, entrenatzaileak, kirol-arloko arduraduna den aldetik, egokitzat jotzen dituen neurriak hartu ahal izango ditu ez-betetze hori zigortzeko, betiere koherentzian eta proportzionaltasunaren printzipioan oinarrituta, eta prozeduraren berri emango die Kirol Zerbitzuari eta adingabeko kirolariaren amari/aitari edo legezko tutoretza duen pertsonari.